



IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

HE2

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

1 Bolada zaila pasatu duela adierazteko:

- a) Horrek lehengo lepotik burua.
- b) Egitekoak egin ditu horrek.
- c) Horrenak egin du.
- d) Bereak eta bi ikusi ditu horrek.

2 "Dohakabeak harpe estu batean hartu zuen aterpe." Bilatu "dohakabeak" hitzaren baliokidea.

- a) zorigaiztokoak
- b) gutxietsiak
- c) zorionekoak
- d) lotsagabeak

3 Handik alde egin agindu nien; bestela ederki damutuko

- a) zutela / zituztela
- b) zezatela / zitzaizela
- c) zitezela / zietela
- d) bezate / zutela

4 Benetako ekologistek maite dute izadia.

- a) zoriz
- b) asmoz
- c) zinez
- d) bermez

5 Michael pertsona ezaguna da eta horregatik bere irudia zabaltzea zela argudiatu zuen akusatua.

- a) zaillegi
- b) zigilu
- c) zilegi
- d) zalu

6 Aberri zabalagorik hauta Txillidak, baina bazter hauetan gelditu

- a) zitzakeen / zuen
- b) zitekeen / zen
- c) zezan / zigun
- d) zezakeen / zitzaigun

**7 Zein da gramatikalki zuzena?**

- a) Zaurituta zegoen arren, bertan behera utzi genion.
- b) Azkenerako elkarri iraintzen hasi ginen.
- c) Zergatik ez dakit, baina ondo dakit gogor gaitzetsi ninduela.
- d) Dirua ateratzera bidali nion, zorrak ordaintzeko.

8 Bakarrik dago eta, , ez dauka inor laguntzeko.

- a) zerbait gertatzear
- b) zerbait gertatuta ere
- c) zerbait gertatzekotan
- d) zerbait gertatuko bada

9 Ba ote du egia horrek, hain izanik, erakutsi beharrik?

- a) nabarmena
- b) bihurria
- c) zalantzazkoa
- d) ezkutukoa

10 Zoria aurka dugula adierazteko:

- a) Kukuak makur jo digu.
- b) Zozoak beleari, ipurbeltz.
- c) Usoak pasa; sareak heda.
- d) Txantxangorriak txantxate.

11 Ez daukat damurik lantegian akordio hura

- a) sinatzea.
- b) sinatua izan dadila.
- c) sinatua izateko.
- d) sinatu izana.

12 "Andre agurgarria: bidali didazun egitasmoak ekarriko lituzkeen gastuak dira." Zein da DESEGOKIA?

- a) kristorenak
- b) ikaragarriak
- c) sekulakoak
- d) egundokoak

13 "Esan izan denaren kontra, gure sekretua kontatzea erabakitzen dugunean gaude ahulen." Zer esan nahi du?

- a) Sekretua kontatzen dugunean, ez gaude ahul.
- b) Esan izan dena ez da egia.
- c) Sekretua kontatzea erabakitzen dugunean ahul gaudela esan dute.
- d) Gure sekretua kontatzea oso seinale ona da.

14 "Eskola elebidunak ezartzeko saioak erauzi zituzten." Zer egin zuten?

- a) Saio horiek bultzatu zituzten.
- b) Saio horiei jaramonik ez zieten egin.
- c) Saio horiek baztertu zituzten.
- d) Saio horiek sustatu zituzten.

15 "Itoizko urtegia martxan jartzeko probak amaitu direnez, hastear dago erabateko ustiatzea" Zer esan nahi du?

- a) Laster bertako ura erabili ahal izango dugula.
- b) Larrialdi-plan berria osatuko dutela laster.
- c) Berehala sortuko direla istiluak.
- d) Urtegia erabat hustuko dutela.



16 Emateak aberasten gaitu, ez irabaziak gordetzeak.

- a) zikoizki
- b) eskuzabalki
- c) ozenki
- d) apalki

17 Ez zaio erreparatu behar

- a) nork zer esan duenik.
- b) nork zer esan duela.
- c) nork zer esan duen.
- d) nork zer esan duelakoari.

18 Ondoko esaldietatik zein da zuzena?

- a) Iratzederrek bai idazle hala itzultzaile moduan sariak irabazi zituen.
- b) Hamabi urterekin joan zen aitarengana apaiza izan nahi zela esaten.
- c) Nire ustez galtzen dugula gizon handi bat, baina olerkari ederra ere bai.
- d) Euskal liturgia berriaren hedapenean toki nagusia hartu zuen.

19 Ni sumatu ihes egin zuen batek, zuhaitzera igotzen eta jaisten ere erakutsiz.

- a) nintzaionerako / bazekitela
- b) nionerako / bazekitela
- c) nintzenerako / bazekiela
- d) nindutenerako / bazekiela

20 "Pilotalekua igandero jendez dago". Zein da DESEGOKIA?

- a) josita
- b) lepo
- c) mukuru
- d) asetuta

21 Zein da zuzena?

- a) Nahi izanez gero, badaude beste material batzuk erabiltzea.
- b) Horrek mantentzen die pertsona hauei nahiko ongi.
- c) Min hartu eta masajistarengana bidali zidan lagun batek.
- d) Bat-batean eraso zidan eta ez nuen jakin zer egin.

22 "Zulo hartan aztarrika zebilelarik kausitu zuen". Zer egin zuen?

- a) Hautsi
- b) Aurkitu
- c) Markatu
- d) Hondatu

23 Ordukoek ezin irakur irakur gaur; baina irakurtzen ote ditugu?

- a) litezkeenak / genituzke
- b) zitzaketenak / genitzake
- c) litzaketenak / dezakegu
- d) zitezkeenak / ditzagun

24 Abortuaren lege berriaren inguruan debate serioa, eta maila altukoa izatea espero da.

- a) hala moduzkoa
- b) azalekoa
- c) lerdena
- d) lasaia



- 25 "Gazta gozoa dago;" Zein da jarraipen egokia?
- a) aukeran lehor samarra.
 - b) aurki lehor samarra egongo da.
 - c) lehor samarra esango nizuke.
 - d) ez dakit, bada, lehor samarra ez ote dagoen.
- 26 "Lasai hasi nintzen, baina egingo nuke ez neukala kalentura txarra bukatzerako." Zer esan nahi du?
- a) Gehiago egingo zuela kalenturagatik ez balitz.
 - b) Lana benetan nekosoa egin zitzaiola.
 - c) Kalentura apur batekin bukatu zuela lana.
 - d) Ez ziola buruhauste handirik eman lanak.
- 27 Etxejaunaren ametsa baserria osorik uztea izaten da, eta hala behar nahitaez, baserriak
- a) irauten badu.
 - b) iraun badu.
 - c) iraungo balu.
 - d) iraungo badu.
- 28 "Film horrek bere sailean, eite bertuko gaia dutenen artean, besteren zorrik ez duela iruditu zait." Zer adierazi nahi du?
- a) Gaiari esker egin da ospetsu.
 - b) Besteek ez bezalako gaia darabil.
 - c) Irabazi handiak izan ditu.
 - d) Antzekoak bezain ona bada.
- 29 "Gerrazalea ni? Ezta alderatzeko ere!" Zer adierazi nahi du?
- a) Koldar samarra dela.
 - b) Gerrak ez duela alde onik.
 - c) Inondik ere ez dela gerrazalea.
 - d) Gerrazaleengana hurbildu ere ez.
- 30 "Libanoko eta Siriako agintariek iragarritako asmo onak hezuramitzen hasi dira." Zertan hasi dira?
- a) Asmo onak zapuzten
 - b) Asmo onak betetzen
 - c) Asmo onak alderatzen
 - d) Asmo onak adosten
- 31 Negarrez erregutu zion ez haurrak eraman.
- a) zizkiola
 - b) zitzakeela
 - c) zitzaizkiola
 - d) zitzala
- 32 Iragarpenak zalaparta handia sortu du alderdi barruan;, hainbat kideren adierazpenak.
- a) hain zuzen
 - b) izan ere
 - c) hor nonbait
 - d) horren lekuko
- 33 "Hor dabil aukeratu ezinik." Zein da baliokidea?
- a) Hor dabil zer aukeratzeko.
 - b) Hor dabil zer aukeratu.
 - c) Hor dabil zer aukeratuko.
 - d) Hor badabil zer aukeratzeko.
- 34 Europa ez da guretzat eskualde aberats nahiz behartsu, zabal nahiz, bortitz nahiz baten deitura.
- a) antzu / dotore
 - b) elkor / naro
 - c) handi / zuhur
 - d) mehar / ahul



35 Renault-ek kaleratu zituen krisia zela-eta.

- a) hamar mila langiletik gora
- b) hamar mila baino gehiago langileak
- c) hamar milatik gora langileak
- d) hamar mila baino gehiago langile

36 "Laster argitaratuko omen duzu libururen bat edo beste. Egia?" Aukeratu erantzun egokia.

- a) Nahi izatea ere!
- b) Nahita, baina bai zera!
- c) Hala nahi, baina ezin!
- d) Nahitaez, berdin dio.

37 "Idazlan gehienak erdarazkoak ditu; hiruzpalau,, euskaraz". Zein da DESEGOKIA?

- a) behintzat
- b) haatik
- c) hala ere
- d) berriz

38 Aspertzen gaituela adierazteko:

- a) Gogaikarria zara, gero!
- b) Gogoangarria zara izan ere!
- c) Guztiz gogatuta gauzkazu!
- d) Gogaide gaituzu gu ere!

39 Kritikarik sonatuenek ere maiz egin dute kolpe huts, obrarik bikainenak eta txepelenak

- a) goretsiz / gaitzetsiz
- b) ederretsiz / apaletsiz
- c) gutxietsiz / gorai patuz
- d) txalotuz / aldarrikatuz

40 Aukeratu jarraipen egokia: "Nekerik gabe zetorkion kantua;"

- a) hura zen etorria!
- b) kantu kaskarrak haiek!
- c) gogorik gabe kantatzen zuen.
- d) aspergarria zen!

41 Berandu iritsi naizelako, irakasleak.

- a) kargu hartu dit
- b) errieta egin nau
- c) ez nau sartzen utzi
- d) zigortu egin dit

42 "Europak berretsi du hizkuntza-eskubideak urratzen direla." Zer dio eskubideez?

- a) Babestu direla.
- b) Berriak aitortu direla.
- c) Ez direla betetzen.
- d) Birplanteatu direla.

43 Ez daukak problema txikia, baina

- a) zur eta lur utzi nauk.
- b) gauzak bere onetik ateratzen ari haiz.
- c) ez dik hala zertan izan.
- d) hiri eta niri zer.

44 Feministek askotan salatu dutenez, emakumeen kontrako indarkeriaren sorburua sexismoa da,

- a) eta ez da gutxi.
- b) esate baterako.
- c) eta ez besterik.
- d) bide batez.



45 Garai batekoek baino bitarteko gehiago dauzkagu ikasteko. Baina, , ikasten ote dugu?

- a) eta hor dago gakoa
- b) ezta hurrik eman ere
- c) eta besterik ezean
- d) eta bide batez

46....., hotz-hotz utzi izan naute askotan Lizardiren poema on ustekoak eta, , zeruetaraino jaso Bilintxen potoz betetako beste batzuek.

- a) Hain zuzen ere / ere
- b) Esan nahi dut / baita ere
- c) Esate baterako / aitzitik
- d) Beraz / are gehiago

47 Zein da gramatika aldetik zuzena?

- a) Epaileak 40 urteko gizona egotzi du neska gazte bat bortxatu izana.
- b) Erreparatzen al diezu idazlaneko akatsei?
- c) Emaztea besotik heldu du eta hor dabil Julen paseatzen.
- d) Burua eraginez, ezetz esan zuen Inaziok.

48 "Istorio horiek telebistarentzat ez bide dira erakargarriak." Zer esan nahi du?

- a) Telebistarentzat istorio horiena ez da bide erakargarria.
- b) Telebistak ez ditu erakartzen istorio horiek.
- c) Istorio horien bide erakargarria ez da telebistarako.
- d) Telebistarentzat, dirudienez, istorio horiek ez dira erakargarriak.

49 "Elkarrekin egon arren, oso gaizki konpontzen dira." Bilatu baliokidea.

- a) Elkarrekin egoteagatik konpontzen dira oso gaizki.
- b) Elkarrekin egotearren, oso gaizki konpontzen dira.
- c) Elkarrekin egonagatik, oso gaizki konpontzen dira.
- d) Elkarrekin egotean, oso gaizki konpontzen dira.

50 horratik ez dela hemendik berrehun urtera zeharo galdu Barojaren liburuen entzutea.

- a) Baliteke
- b) Baietz
- c) Egingo nuke
- d) Nahiko nuke

51 Non dago ortografia-akatsa?

- a) Parte-hartzaile
- b) Mendiz-mendi
- c) Egin berria
- d) Ama-hizkuntza

52 Hura zen estuasuna: txistulari bat behar jaietan jotzeko eta

- a) inor agertu!
- b) inor agertzen ez!
- c) edonor agertuko!
- d) edozein ez agertzen!

53 MP3ko grabazioak eramango onena zein den esan

- a) ditut / ditzazun
- b) dut / diezazkidazun
- c) dizut / diezazun
- d) dizkizut / diezadazun

54 "Urrea agindu eta urria eman". Zer adierazi nahi du?

- a) Kanpoaldea ez da inoiz barnealdearen ispilu.
- b) Asko eskaini eta gutxi ematen du.
- c) Dirudiena eta dena ez datoz beti bat.



d) Urrea kantitate txikitan ematen da.

55 Galdera bat curriculum berriaren inguruan.

- a) dagokit buruan
- b) darabilt buruan
- c) dihardut buruan
- d) dakusat buruan

56 Zein da zuzena?

- a) Demagun baietz, ezagutu gaituztela.
- b) Demagun bai, ezagutu gaituztela.
- c) Demagun bai, ezagutu gaituzte.
- d) Demagun baietz, ezagutu gaituzte.

57 , bestalde, ez dudala inolako eragozpenik hori egiteko.

- a) Dakidan
- b) Diodan
- c) Dagokidan
- d) Dagoen

58 Guk biok heziketaren inguruko hausnarketa anitz partekatzen ditugun arren

- a) tarteka iritzi kontrajarriak ditugu.
- b) antzeko pentsamoldea dugu.
- c) bolo-bolo zabaltzen dira gure iritziak.
- d) ez dugu isiltzeko asmorik.

59 Zein dira baliokideak?

- a) zedarritu / xehatu
- b) eraitsi / erasan
- c) birrindu / birmoldatu
- d) ehortzi / lurperatu

60 Den-dena ulertu nion; da konforme nagoen ala ez.

- a) bestela
- b) bestea
- c) besterik
- d) bestelakoa

61 Zein da gramatika aldetik zuzena?

- a) Prebentzioari lehentasuna ematea dakar gaixotasun ugari sendatzea.
- b) Herri aberatsetan handiagoa da bizi-itzaropena herri pobreak baino.
- c) Berlinen bazen harresi bat gerra ostean egin zutela.
- d) Zalantzan nago ez ote diren beteko eguraldiari buruzko iragarpenak.

62 Berebizikoa zen, izan ere, gure irakaslea; , alegia.

- a) paregabea
- b) bizi-bizia
- c) bere garaikoa
- d) jenio bizikoa

63 Gorrotatzen nautela adierazteko:

- a) Begirune handia didate.
- b) Begitan hartu naute.
- c) Begiz jo naute.
- d) Begipean naukate beti.

64 Argazkian aita agertzen zen erdian, eta ama-alabak alde

- a) batean
- b) banatan
- c) bakoitzan
- d) bitan

65 Txakurrari hurbildu, kosk egingo

- a) bagina / ligukeen
- b) badugu / zigun
- c) baginen / ligukeen



d) bagintzaizkio / zigun

66 Krisia gora eta krisia behera, baina inork ez du eredu ekonomikoa nahi.

- a) auziperatu
- b) auzitara jo
- c) auzia eman
- d) auzitan jarri

67 Euskaldun asko da euskal irakurgai errazik ere irakurtzen ez

- a) duela.
- b) dituztela.
- c) dituztenik.
- d) duenik.

68 Gizakiak eta giza lanak sailkatzeko bide asko daude: onak edo gaiztoak, atsegin zaizkigunak eta ditugunak, edota dotoreak eta

- a) higuin / zarpatsuak
- b) gogoko / bikainak
- c) aintzat hartzen / galantak
- d) estimatzen / zalapartariak

69 Txillida hemengoa da, hemen sortu zelako eta hemengotar izan nahi zuelako

- a) halabeharrez / jakinaren gainean
- b) tamalez / kostata
- c) agian / ezinbestean
- d) bere borondatez / zoriz

70 Egoerari aurre egin beste erremediorik ez daukazu;

- a) ezin duzu atzera bota.
- b) ezin zara atzeratu.
- c) ezin duzu atzera egin.
- d) ezin duzu atzera

ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK

HE2

| | | | | | | | | | | | | | |
|----|---|----|---|----|---|----|---|----|---|----|---|----|---|
| 1 | D | 11 | D | 21 | D | 31 | D | 41 | A | 51 | B | 61 | D |
| 2 | A | 12 | A | 22 | B | 32 | D | 42 | C | 52 | B | 62 | A |
| 3 | B | 13 | B | 23 | B | 33 | C | 43 | B | 53 | D | 63 | B |
| 4 | C | 14 | C | 24 | D | 34 | D | 44 | C | 54 | B | 64 | B |
| 5 | C | 15 | A | 25 | A | 35 | A | 45 | A | 55 | B | 65 | D |
| 6 | D | 16 | A | 26 | B | 36 | C | 46 | C | 56 | A | 66 | D |
| 7 | C | 17 | C | 27 | D | 37 | A | 47 | B | 57 | B | 67 | D |
| 8 | B | 18 | D | 28 | D | 38 | A | 48 | D | 58 | A | 68 | A |
| 9 | A | 19 | D | 29 | C | 39 | C | 49 | C | 59 | D | 69 | A |
| 10 | A | 20 | D | 30 | B | 40 | A | 50 | C | 60 | C | 70 | C |